

## PETRONORREK 133,8 MILIOI EUROKO ZERGA ONDORENGO MOZKINA ESKURATU DU

<u>EMAITZAK (milioika eurotan)</u>	<u>2008</u>	<u>2007</u>
Ustiapenaren emaitza	115,1	249,3
Finantza arloko emaitza	28,1	113,6
	-----	-----
<b>EMAITZA (zerga aurrekoa)</b>	<b>143,2</b>	<b>362,9</b>
Mozkinen gaineko zerga	(9,4)	(66,5)
<b>EMAITZA GARBIA</b>	<b>133,8</b>	<b>296,4</b>
	-----	-----
	-----	-----
Ustiapenaren emaitza (izakinen ondorerik gabe eta kontzeptu "ez errepikaririk" gabe)	212,5	201,8
	-----	-----

- PETRONOR enpresak 133,8 milioi euroko mozkin garbia eskuratu zuen 2008. urtean, gordinkien eta produktuen prezioek zeharo behera egin zuten ingurunean.
- Prezioen beherakada latz horren ondorio gisa, ustiapenaren emaitza (115,1 milioi euro) % 50 baino gehiago jaitsi da aurreko urteari zegokion ekitaldiko ustiapenaren emaitzaren aldean.
- 2008ko izakinen balorazioak izan duen eragin negatiboa kontuan hartu gabe (2007an positiboa izan zen balorazio hori), eta, era berean, errepikariak ez diren kontzeptuak aintzat hartzeke, ustiapenaren emaitza % 5,3 handiagoa izango zatekeen, upeleko eurotan neurtutako aleko finketaren marjinaren % 2,8ko hobekuntzari eta eragiketen optimizazioari esker.

<b><u>JARDUERAREN ARLOKO BESTE IZARI BATZUK</u></b>	<b><u>2008</u></b>	<b><u>2007</u></b>
<b>Prozesua</b> (milaka tona petroliotan)	10.788	10.462
<b>Salmentak</b> (milaka tonatan)	<u>10.612</u>	<u>10.812</u>
- Nazio barruko merkatuan	7.013	7.310
- Nazioarteko merkatuan	3.599	3.502
<b>Inbertsioak</b> (milioika eurotan)	<u>170,7</u>	<u>101,7</u>
- URF proiektuan	126,4	61,8
- Beste inbertsio batzuk (eraginkortasun, segurtasun eta ingurumen arloetan)	43,3	39,9

- Instalazioen baliagarritasuna handia izaki, PETRONOR enpresak % 3,1 gehitu du prozesua 2007. urteari zegokion ekitaldiaren aldean.
- Ezin daiteke gauza bera esan salmentei buruz; izan ere, nazio barruko merkatuari begiratuta, jarduera ekonomikoaren beherakada islatzen hasi da zenbait produkturen entregei dagokienez.
- Testuinguru ekonomiko larrian gaudelarik, Petronorren jarduera herstura-politikari doituko zaio, baina beti ere bere inbertsio estrategikoei uko egin gabe (horien artean URF proiektua berebizikoa baita).
- Gaur egun, industri proiektu honen alde apustu egiteak ondokoa esan nahi du: enpresa honek findegiaren etorkizuneko bideragarritasunerako erantzukizun soziala eta instituzionala goitik behera bereganatzen dituela, ingurumenaren alorreko konpromiso zorrotza hartuz.

<b><u>EGOERA-BALANTZEA</u></b> <b><u>(Milioika eurotan)</u></b>		
	<b><u>2008</u></b>	<b><u>2007</u></b>
Aktibo ez arruntak	552,5	376,1
Izakinak	333,1	546,4
Zordunak	235,1	429,9
Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk	55,8	149,0
	-----	-----
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.176,5</b>	<b>1.501,4</b>
Ondare garbia	621,5	698,3
Pasibo ez arrunta: epe luzerako hornidurak eta geroratutako zergaren karizko pasiboak	45,3	52,5
Pasibo ez arrunta: epe luzerako zorrak	110,2	0,4
Pasibo arrunta: hartzekodunak (epe laburrean)	399,5	750,2
	-----	-----
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.176,5</b>	<b>1.501,4</b>

- Petronorrek posizio sendoa du finantza arloan; izan ere, epe luzerako zorrari doakionez, ratioa ez da erabili den kapitalaren % 10era ere iristen.
- Posizio horretaz jabeturik, bazkideek epe luzerako maileguen bidez egiten dituzten ekarpenen laguntzarekin eta Europako Inbertsio Bankuari eskatu zaizkion baliabideekin, zeharo bermaturik dago URF proiektuaren finantzaketa.
- Honako hauek dira Konpainiak heldu den ingurune lehiakor honetarako dituen errentagarritasun-perspektiben oinarriak: URF proiektua eta egitasmo hau ingurumenari dagokionez iraunkorra izan daitekeen industri eskeman doitzea.